

Gure jendea nora joan, hara joan beharko du euskarak

«Baina, euskara larrekkoa, nahi haut noranahikoa: jakite-hegoek igoa; soina zahar, berri gogoa». Askotan aipatzen ditugu Lizardiren bertso horiek; baina, esango nuke, «noranahiko» izate horretan, «jakite-hegoek igoa» hartzen dugula kontuan. Hala izan ohi da hizkuntza gutxiagotuen biziberritze prozesuetan. Erabilera-eremu berriak eman nahi izaten zaizkio hizkuntza horri: administrazioa, hezkuntza, unibertsitatea, hedabideak... Alegia, funtzio formalak betetzera iristea izaten da helburu. Hala egin zuen bizitza osoan zehar Joxe Azurmendik eta, berarekin batera, *jakinlariak* ere, JAKIN sortu zenetik beretik: jakite-hegoek igoa izango zen euskara landu. Hizkuntzaren ‘estatus plangintza’ esaten diote soziolinguistek.

Noranahiko izateak, baina, jakite-hegoez igotako euskara bai, baina beste zerbait ere eskatzen du. Beste zerbait horretaz jardun nahi dut lerro hauetan; zehazkiago esanda, Azurmendik beste zerbait horretaz 1963 eta 1982 artean idatzitako hiru artikuluren gainean. Zein da, nire iritziz, hiru artikuluoak lotzen dituen? Izenburutzat aukeratu dudana: gure jendea nora joan, hara joan beharko du euskarak; ez alderantziz. Argi zuen Azurmendik 1960ko hamarkadarako modan zegoen indarra unibertsalismoa zela, eta, beraz, inguruko hizkuntzetako hiztunek eskura zituzten moduko produktuak behar zituztela euskaldunek ere, dela musikan, dela literaturan.

1963an, ‘Euskaltzaleen batzarrea Arantzazun’ (*Egan* 4, 1963) artikuluan, garai hartan irratiek ematen zituzten abestiak euskaratu beharra defendatu zuen. Adibidez, etengabe entzuten zen Domenico Modugno-ren *Volare* abestia, hainbat hizkuntzatara moldatua. Baina euskaldunek italieraz edo Lucho Gaticaren gaztelaniazko bertsioan entzun behar izaten zuten. Horrelako abestiak euskaratzea edo taxuz egin-dako euskarazkoak sortzea eskatzen zuen. «Gure jendea nora joan,

hara joan beharko du euskarak, ez aldrebes. Bestela, klub, txalet eta horrelakoei izena emateko bestetarako ez digu balioko». Ezagutzen zituen Zarauzko Naya taldea eta Labeguerieren kantak. «Horrelako asko bagenitu...».

Musikan bezala, berdin literaturan ere. «Egungo gizonak, baxoerdiak edo kafea 'behar' duen moduan, kontsumorako irakurgai erraz arina behar du, trenean doanerako, denbora pasa dagoenerako, burua nekatu nahi ez duenerako» ('Kultura nazioartean. Nobela sinpleak eta euskara', *Anaitasuna* 313, 1976). Lafuente Estefanía irakurtzen duen euskaldunak izan dezala horren pareko zerbait euskaraz. Mota horretako literatura alienazioaren kate luzean egon daitekeela onartzen zuen Azurmendik, baina: «Beno, eta besterik ez balitz ere: erdaraz alienatzea hobe ote da euskaraz alienatzea baino? Ez daukagu horretan ere zergatik erdarari abantailarik eman. Baditu bestela ere nahikoa». Arrazoi biribila.

Bide beretik, 'Enekok erdaraz irakurtzen du' (*Argia* 933, 1982) artikuluan, hamalau urteko neska-mutikoen irudimena asebeteko duten liburuen beharra aldarrikatzen du. Alemanian ere ibili zen galdezka zein motatako liburuek zuten arrakasta adin horretakoen artean. Ingalaterran eta Alemanian historia nobelatua zen nagusi orduan. «Donostia gainean hor dago gaztelu zahar bat hautsita. Historia bat asma liteke nahi den pertsonaiekin eta gertaerekin harri horien gainean, ikus dezanak tokia errekonozitzeko moduan. Butroe eta abar ere hor daude».

Euskaraz bizitzeko adin guztietako euskaldunek behar dituzten produktu, plataforma, sare sozial eta abarrez kezkatuta gabiltzan garai hauetan, bide-erakusle eta aitzindari bikain dugu Joxe Azurmendi.